# IRAILAK 27

## NAZIOARTEKO IKASLE GREBA

Ikasle Sindikatua
ikaslesindikatua.net

## Kapitalismoa PLANETA HILTZEN ari da

## IRAULTZA bat behar dugu

Azken hilabete hauetan gazteok burutu dugun borroka izan da hondamendi ekologikoaren aurkako ekintza garrantzitsuena. Sarraskiaren benetako arduradunak seinalatu ditugu: sistema kapitalista, multinazional handiak eta beren zerbitzura dauden gobernuak. Mundu osoan ikasle grebak, manifestazioak, kontzentrazioak eta okupazioak ugaritu egin dira, azken urteetan "klimari buruzko goi-bilerak" antolatu dituzten politikarien hipokresia salatzeko; ingurugiroaz kezkatzen diren itxura egiten dute, baina natura suntsitzen jarraitzen dute, arnasten dugun airea eta jaten ditugun jakiak kutsatzen.

Irabazi mugagabeak lortzeko, magnate eta enpresari gutxi batzuek ez dute zalantzarik egiten planeta suntsitzeko orduan, Trump, Bolsonaro eta gaineko gobernuen babesarekin. Datuek argi diote: mundu osoko CO2aren isurpenen %71 100 enpresek bakarrik eragiten dute, eta munduko pertsona aberatsenen %10a isurpenen %49aren arduradun da.

### "Kapitalismo berdearen" iruzur handia

Orain sistemaren politikari horiek "diskurtso berdea" bere egin dute, mugimendua asimilatu eta izaera antikapitalista ezabatzeko. Baina uda honetan Groenlandiaren urtzeak eta Amazonia erraustu duten suteek argi utzi dute ezin dezakegula konfiantzarik izan berengan, ezta beren erakundeengan. Alderdi berde asko ere, Irlandan edo Alemanian bezala, gobernura iritsi direnean enpresen interesen menpe jarri dira eta murrizketa eta pribatizazio politikak babestu dituzte.

Euskal Herrian, EAJ bere burua zuritu nahian dabil gazteriaren mobilizazioaren aurrean, irudi ekologista hartu nahian, baina praktikan beti defendatu izan dituzte enpresarien irabaziak Euskal Herriko ingurumena suntsitzearen kontura. AHTaren obrak, Zubietako erraustegia, frackinga… Ez da kasualitatea Estatu espainiar guztiko kutsaduraren arduradun handiena Josu Jon Imaz izatea, EAJko Euskadi Buru Batzarreko lehendakari ohia eta egun Repsoleko kontseilukide ordezkaria. Berdin gertatzen da PSOEren Gobernu espainiarrarekin. "Trantsizio ekologikorako agenda" martxan jartzeaz hitz egiten du, baina mota guztietako pribilegioak eman dizkie kutsaduraren multinazionalei boterean egon den urte luzeetan.

### Natura babestu gizartea eraldatuz

Planetaren biziraupenaren aldeko borroka ez dagokio gazteriari bakarrik, eta ez da bereizten gainerako aldarrikapen sozialetatik edo azken urte hauetan borrokatu ditugun hezkuntzako aldarrikapenetatik. Hori dela eta, langileen sindikatuei ere grebara batu eta 24 orduko greba deitzeko eskatzen diegu.

Planeta salbatzeko ezinbestekoa da monopolio handiek mundu mailako ekoizpenean inposatzen duten diktadurarekin amaitzea. Beharrezkoa da ekonomia modu arrazionalean planifikatzea, ingurugiroa zainduz eta lanpostu guztiak, soldatak eta zerbitzu publiko duinak bermatuz. Zapalkuntza kapitalista garaituz eta justizia sozialean oinarritzen den gizarte benetan demokratikoa —gizarte sozialista— eraikiz bakarrik lortuko dugu natura babestea eta hondamendia saihestea.

Hori dela eta, Ikasle Sindikatutik gazteriari dei egiten diegu irailaren 27ko ikasle greban parte hartzeko, goizean estatu osoan antolatu ditugun manifestazioetan kaleak hartzeko eta mugimendu ekologista antikapitalista eta iraultzailea eraikitzeko.

## Manifestazioa zure hirian • 12etan

**GASTEIZ: Andra Mari Zuriaren plaza | BILBO: Arriaga**
**DONOSTIA: Boulevard | IRUÑEA: Udaletxe plaza**

**www.ikaslesindikatua.net**

# 27 SEPTIEMBRE

## HUELGA ESTUDIANTIL INTERNACIONAL

Ikasle Sindikatua

ikaslesindikatua.net

# El capitalismo MATA el PLANETA

## Necesitamos una REVOLUCIÓN

La lucha que los jóvenes hemos protagonizado estos meses constituye la acción más importante contra la catástrofe ecológica y los responsables de ella: el sistema capitalista, las grandes multinacionales y los gobiernos a su servicio. Huelgas estudiantiles, manifestaciones, concentraciones y ocupaciones se multiplican por todo el mundo para rechazar la hipocresía de los políticos que durante años han celebrado "cumbres del clima", aparentando una sensibilidad medioambiental de la que carecen, mientras permiten que se siga destruyendo la naturaleza y envenenando el aire que respiramos y los alimentos que comemos.

Para asegurarse beneficios sin límite, una minoría de magnates y empresarios no duda en arrasar el planeta con la complicidad de Trump, Bolsonaro y el resto de gobiernos. Los datos lo dicen claramente: el 71% de las emisiones de CO2 en el mundo son producidas por 100 grandes empresas y el 10% de los millonarios más ricos son responsables del 49% de las emisiones globales.

### La gran mentira del "capitalismo verde"

Ahora, estos políticos del sistema tratan de sumarse al carro de lo "verde" para asimilar nuestro movimiento y despojarlo de su carácter anticapitalista. Pero lo ocurrido este verano con el deshielo de Groenlandia o los brutales incendios que están destruyendo la Amazonia demuestra que no podemos confiar en ellos ni en sus instituciones.

Tampoco en muchos de los partidos verdes que cuando han participado en gobiernos como el de Irlanda o Alemania se han plegado a los intereses empresariales y han apoyado los recortes sociales y las privatizaciones.

En Euskal Herria el PNV ha declarado "el estado de emergencia climática" para intentar lavarse la cara ante la movilización de la juventud, que no supone ningún cambio. En la práctica siempre ha defendido los beneficios de los empresarios a costa de devastar el medio ambiente en Euskal Herria. Las obras del TAV, la incineradora de Zubieta… No es ninguna casualidad que la persona responsable de la mayor contaminación en todo el Estado español sea Josu Jon Imaz, expresidente del PNV y actual consejero delegado en Repsol. Lo mismo ocurre con el Gobierno español del PSOE que habla de poner en marcha una "agenda de transición ecológica" pero que han concedido todo tipo de privilegios a las industrias contaminantes durante años en el poder.

### Defender la naturaleza transformando la sociedad

La movilización por la supervivencia del planeta no sólo incumbe a la juventud, y no está separada del resto de reivindicaciones sociales y educativas por las que hemos peleado en estos años. Por esta razón también apelamos a los sindicatos de trabajadores en su conjunto a que se sumen a la lucha y convoquen una huelga general de 24 horas.

Salvar el planeta requiere terminar con la dictadura que los grandes monopolios ejercen sobre la producción mundial, y establecer la planificación de la economía de manera racional y respetuosa con el medioambiente, garantizando el pleno empleo, salarios y servicios públicos dignos. Sólo acabando con la opresión capitalista y construyendo una sociedad auténticamente democrática y basada en la justicia social, una sociedad socialista, podremos preservar la naturaleza y librarnos de la catástrofe que nos amenaza.

Por eso el 27-S desde el Sindicato de Estudiantes llamamos a toda la juventud a la huelga estudiantil y a llenar las calles en las numerosas manifestaciones que organizaremos por la mañana en todo el estado, levantando un movimiento ecologista anticapitalista y revolucionario.

## Manifestaciones a las 12 h.

**GASTEIZ: Virgen Blanca | BILBO: Arriaga**
**DONOSTIA: Boulevard | IRUÑEA: Pl. del Ayuntamiento**

**www.ikaslesindikatua.net**